

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Atal honen bitartez, bezeroekiko harremanak zehaztuko ditugu. Gure bezeroekin harremanetan egoteko hainbat modu erabiliko ditugu.

Gure bezeroek honako zerbitzu mota hauek izango dituzte gurekin harremanetan jarri eta beraien arazoei aurre egiteko:

Lehenik, “chat” zerbitzua izango dugu. Bezeroek 24/7 eskuragarri dagoen “chat” zerbitzua izango dute, eguneko edozein unetan euren arazoa helarazi ahal izateko eta horri konponbide bat topatzeko gure zerbitzuen bitartez.

Bigarrenik, telefono zerbitzua egongo da. Bezeroek telefonoz harremanetan jartzeko aukera izango dute 08:00etatik 20:00etara. Ordutegi horretan, gure langileekin zuzenean hitz egin ahal izango dute, beren arazoaren berri emateko.

Beste aukera bat aurrez aurreko zerbitzua izango da. Bezeroek gure lokalera joateko aukera izango dute 08:00etatik 20:00etara, arreta pertsonala jasotzeko eta beren arazoei buruz zuzenean hitz egiteko. Aldez aurretik txanda hartzen badute hobe. Zerbitzu honen bidez, bezeroek arreta pertsonalizatu eta dedikatua jasotzeko aukera izango dute.

Hitzaldiak ere eskaintzen ditugu. Bezeroek osasun mentalari buruzko hitzaldiak jasotzeko aukera izango dute hainbat gunetan, eta horrela, psikologo profesionalekin kontaktatu ahal izango dute aurrez aurre.

Azkenik talde terapia dugu. Gure bezeroek talde-terapian parte hartzeko aukera izango dute, beren arazoei aurre egiteko baliabideak eskuratuz eta harreman berriak sortuz.



Zerbitzuaren ostean, bezeroari gure zerbitzua baloratzeko eskatuko zaio, haien beharra asetu eta arazoarekin lagundu diogula ziurtatzeko. Horrela, beraien iritzia kontuan hartzen dugula ikusiko dute, gertutasun maila handiagoa sortzeko. Horrez gain, beraien balorazioei esker, gure zerbitzuan zer hobetu dezakegun jakingo dugu.